



Literaktum 2016
Hitzen Hiria –
La ciudad de las palabras
Maiatza 3 – 14 mayo
Donostia/San Sebastián

Joan den apirilaren 12an, Donostia Kulturak Literaktum jaialdiaren berri eman zuen, esanez zein egunetan egingo den eta zein izango diren jarduera batzuk; bestek beste, **Zilarrezko Euskadi Sariak**, Gipuzkoako Liburu-saltzaileen Elkarteak eman ohi dituenak. Literaktum jaialdiak beste arte-diziplina batzuekiko elkarrizketan eta garaiotako eztabaidei lotuta ulertzen du literatura. Literatura aniztasuna da, esperimentatzeko bideak irekitzen ditu, lurralde berriak esploratzen, eta, horrenbestez, Literaktumek aukera sorta zabal hori islatu nahi du, irakurleoi agertzen zaigun mundu hori, liburu batera hurbiltzen garen bakoitzean.

Proposamenen aberastasun hori **sare gisa antolatutako jaialdi** bihurtu da; zenbait espazioren bitartez, **programazio zeharkakoa eta mestizoa** zabaltzen du Donostian: bidea egin duten autoreak, promesa diren beste batzuekin batera; musikan, futbolearen edo Atxagaren literatur paisaian egindako ibilbideak; liburu-denden lurralde librearen mapa, Shakespeare eta Cervantes, ilustrazioak, itzulpenak, irakurle-klubak, txikienezko jarduerak. Hori guztia sartzen da Literaktumen, literaturak mila aurpegi eta mila bide baititu.

Aurtengo Literaktumeko jarduerak honako kultur etxe hauetan egingo dira: **Okendo** (Gros), **Ernest Lluch** (Amara), **Tomasene** (Altza), **Aiete**, **Lugaritz** (Antigua); baita beste leku hauetan ere: **Liburutegi Nagusia**, Alderdi Ederren jarriko den **Irakurgune** karpa, **San Telmo Museoa**, **Koldo Mitxelena Kulturunea** eta Donostiako zenbait liburu-denda. Aurten, jaialdiak Donostiatik irten eta **Asteasu** bisitatuko du, **Muskerraren Bidea** proiektua hain zuzen ere. Proiektu horretako protagonista dugu gaur hemen gurekin: **Bernardo Atxaga**.

Aurten, halaber, zenbait bidai lagun ditugu, Literaktum indarren elkargune bihurtzen laguntzen dutenak. **Gipuzkoako Liburu-saltzaileen Elkarteari** esker, jaialdiak **Liburu Lurralde** izeneko atala du, liburu-dendetan izango diren jardueren programa; horrez gainera, esan bezala, **Zilarrezko Euskadi Sariak** ere bai, eta gurekin izango ditugu aurtengo irabazleak, **James Rhodes** eta **Alaine Agirre**, maiatzaren 5ean eta 6an, hurrenez hurren.

Koldo Mitxelena Kulturunean ere zenbait jarduera egingo dira: batetik, Alaine Agirre, Jasone Osoro eta Saioa Royoren arteko solasaldia, eta, bestetik, Liburu-saltzaileen Nazioarteko Topaketa, biak ere Europako Kultur Hiriburutzaren programaren barruan.

Ez da hori Literaktumen eta DSS2016EUren arteko lankidetzaren ekitaldi bakarra. **Donostiapedia** proiektuaren barruan, Wikipedia tailerra egingo da, lankidetzaren proiektu global horretan gure jaialdian bertan sortutako edukiak txertatzeko. Parte hartzen dutenek Literaktumera gonbidatutako idazleei buruzko artikuluak editatzeko aukera izango dute, dinamizatzailer baten laguntzaz, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Eta lehen aipatutako proiektuak ere, Muskerraren Bidea, Asteasun, Kultur Hiriburutzaren lakidetzaren du.

Euskal Idazleen Elkarte ere lankide izango dugu Literaktumen aurten, aurreko urteetan bezala, jaialdiaren literatur aholkulari gisa; bereziki, euskarazko literatur produkzioari dagokionez.

Maiatzaren 3tik 14ra bitarte, **40 gonbidatu** inguru pasatuko dira Literaktumetik, **20 jardueratik** gorako programa batean, literaturaren ikuspegi zeharkakoa eskainiz, non, aurten, **narratiba** baita protagonista nagusia: autoreekiko elkarrizketak, antzerki- eta

musika-proposamenak, erakusketak, literatur ibilaldiak eta haurrentzako jarduerak, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, galegoz edo zeinuen hizkuntzan.

Aurten, **Cervantes** eta **Shakespeare** hil zireneko laugarren mendeurrena betetzen baita, Literaktumek omenaldia eskainiko die literatura unibertsaleko bi jeniooi. Jaialdira gonbidatutako idazleek beren obraren zatiren bat irakurriz amaituko dute saioa, eta haren eraginari buruzko gogoeta batekin.

Irakurgunea, Alderdi Ederren, irakurleen topagune izango da berriz ere, eta aukera emango digu Donostia Kulturako liburutegi-sareak eskaintzen dituen programak ezagutzeko eta programa horiez gozatzeko. Eta Donostiako liburu-dendetan, berriz, **idazleekiko kafeek** ere aukera emango digute miresten ditugun horiekin solasean jarduteko.

Horren guztiaren berri emango du jaialdiaren blogak, **Literaktum Kaierak**. Aurten, **Aritz Gorrotxategi** izango da idazle gonbidatua. Hark egingo du autore-kronika, eta bertan eskainiko dizkigu jaialdiko autoreei, gaiei eta jarduerari buruzko gogoetak.

Literaktumek zenbait **atal edo bloketan** banatzen du programa:

IBILBIDEAK

Elkarrizketa sakonak jaialdira etorritako idazleekin haien lanari buruz, literaturaz duten ikuspegiaz, haien sorkuntzaz edo mundu-ikuspegiaz.

Asteartea 3: **Juan José Millás** + Eva Monente. Okendo KE. 19:30

Azteazkena 4: **Elvira Lindo** + Alicia San Juan. Tomasene KE. 19:30

Osteguna 5: **James Rhodes** + Mikel Chamizo. San Telmo Museoa. 19:30

Ostirala 6: "Harrak berbetan", **Alaine Agirre** + Jasone Osoro + Saioa Royo.

Koldo Mitxelena Kulturunea. 19:30

IRAKURGUNEA

Irakurketarako eta irakurleentzako leku bat, Donostia Kulturaren liburutegi-sareak antolaturiko programak ezagutzeko eta haietaz gozatzeko: solasaldiak, irakurketa-klubak, idazleekiko hizketaldiak...

Asteartea 10: **Anjel Lertxundi** + Goiatz Labandibar + Goizalde Landabaso. Alderdi Eder. 19:00

Asteazkena 11: **Jordi Fibla** + Slawka Grawoska (Donosti Book Club). Alderdi Eder. 17:00

Osteguna 12: **Manuel Rivas** + Amaia García. Alderdi Eder. 19:00

LITERATURA ETA GEHIAGO

Literatura beste arte-hizkuntza batzuekin eta beste jakintza-arlo batzuekin elkarrizketan.

Osteguna 5: **Wikitaler Literaktum** (Donostiapedia), Haur Liburutegia. 17:00

Ostirala 13: **Literatura y fútbol, Santiago Rocangiolo + Santiago Segurola** + Aixa de la Cruz. Ernest Lluch KE. 19:30

Larunbata 14: **Muskerraren bidea**, visita literaria con Bernardo Atxaga - Asteasun. 11:30

Larunbata 14: **Sokak**. Musika eta poesia. CC. Lugaritz. 20:00

Erakusketak: **Photowriting** Okendo KE. (maiatzaren 31era)

Pochipuinak (1983 - 2013) Ernest Lluch KE.(maiatzaren 6tik ekainaren 30era).

LIBURU LURRALDEA

Liburu-dendak askatasunaren lurralde dira, elkarrizketarako, aurkikuntzarako eta gogoetarako. Liburu Lurraldeak indartu egin nahi du liburu-dendek topaketarako eta elkarrizketarako duten gaitasun hori, kafea, eztabaidak, irakurraldiak... direla medio.

Liburu-saltzaileen Munduko Topaketa.

Gidatzailea: **Jorge Carrión**. Koldo Mitxelena Kulturunea. 19:00

Asteartea 3: **Todas las librerías son librerías de viaje**. Catherine Domain (Librairie Ulysse) + Rachel Muyal (Librairie des Colonnes).

Asteazkena 4: **Todas las librerías son centros culturales**. Gonzalo Queipo y Alfonso Tordesillas (Tipos infames) + José Pinho (Ler Devagar) + Xabier Vidal (Nollegiu)

Kafea idazleekin

Zozketaz hautatutako irakurle taldetxo batek aukera izango du miresten duen idazle batekin solastatzeko, liburu-denda batean kafea hartu bitartean.

Asteartea 3: **Juan José Millás**. Hontza Liburudenda. 17:00

Asteazkena 4: **Elvira Lindo**. Elkar Liburudenda (Bergara Kalea). 17:00

Solasaldia

Bi idazleren arteko literatur topaketa, letra galegoetan eta euskal letretan barrena.

Osteguna 12 : **Manuel Rivas + Ixiar Rozas**. Garoa Liburudenda. 17:00

AMETSEKIN JOLASEAN

Etorkizuneko irakurleentzako literatur proposamenak.

Asteartea 3: **Irudipuinak**, Mattin + Ixabel Agirresarobe. Aiete KE. 18:00

Asteartea 10: **Ipoirudika**, Aitziber Alonso + Yolanda Arrieta. Aiete KE. 18:00

Asteazkena 12: **Irakurketa klubetako izarrak**, Lur Korta. Alderdi Eder. 17:30

LITERAKTUM KAIERA

Jaialdia bidaia da, idazle, jarduera, leku eta gaietan barrena egindako bidaia. Literaktum Kaiera izeneko bloga da bidaia horretako bitakora-kaiera, eta urtero idazle batek izaten du eginkizun hori. 2016ko Literaktumen, **Aritz Gorrotategik** idatziko du literaturari eskainitako egun bete horien kronika.